

Sarreren

salmmenta

kutxazainetan



Ez zaitez egon ilaran itxaroten

Orain, hainbat zinema eta ikuskizunetarako sarrerak, era erraz eta erosoan lortu ditzakezu BBK-ko orotarako kutxazainetan edo 944 310 310 telefonora deituta.

bbk =

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA


bertu

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

2002ko ABENDUA / 50. zkia. DOHAIN

Xarles Cepeda

"Presio inmobiliarioa, baso politika eta azpiegiturak dira Urdaibairen kontrako mehatxuak"



Euskal Selektzioaren jokoa

Mahatsorriak Bizkaiko Bertsolari Txapelketan

Karmelo ikastolaren borroka




Tiboliko elexa zaharra

Zeuotako asko akordatuko zarie goiko elexa horrekin. Begoñaibarrako Campo Volantineko hasieran egoan, Udaletxetik hur. Tiboliko elexa zan eta 'Las Esclavas' mojen kolejiokoa zan. Ondoan pasealeku horretako lelengo txaletak ikusten doguz. Gaur egun txalet horreen partez etxe dotoreak dagoz. Elexa be ez dago. 1970 urteetan bota eben. Tiboli izena bertan egoan baserri bati zor eutson elexak eta zor deutsoe gaur egun bertako kaleak eta eskola publikoak.

Argazkia 'Nire Bilbao maitia' liburutik hartu dogu. Luis Amann Egidazuk eta Roman Alonso de Miguelek paratu eben

Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Bizkaiko Bertsolari Txapelketa ...	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta Euskerea	8	▶ Hezkuntza	24
▶ Asapalaren irakurlearen txokoa ...	10	▶ Kirolak eta Mendia	26-27
▶ Euskal Selektzioaren bideojokoa ...	12	▶ Kirikiñoko Bertso Hitzordua	28
▶ Elkarrizketa: Xarles Cepeda	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Txapapotie honantza dator eta lehenago arreglaten ez bada, aurtien plaiara doana zurt ibili bierko da galipo-mokordoakaz. Dana dala, ardure bakarra hori ixen ezkeru ondo, baie batzuk ondo arduratute egoteko motiboa deukie, marea baltzak arraine, txoridrek ta hainbaten biximodue dana bere kakaztuko dau. Urdaibain txoridxeri ta karramarroeri aittuten dabilena bere zurt ibiliko da egunokaz txoridrek galipoa dakarrien ala ez ikusteko. Hamen, barriz, galipo marearik ez jaku allegauko. Boluetako zubi azpire galletan bat allegau ezkeru, ez da Galizikoa ixengo. Euskaldunok gabiltzez hamen galipo-galletan

modure, hamen batzuk bertsotan, han bestiek liburuakaz, ikastolie non ipini asertau ezinik beste batzuk, telebisiñoan olgetako kontuakaz beste batzuk... , galleta bat han, beste bat hamen, hor bat ta honago bat gehidxago. Ta baten bat galletak rebista baten kontaten. Galletak txapapote moltzo handidxe baino fasillago ei direz kentzen, baten bat hau mareatxua bere kentzeko asmotan dabil, harek boluntaridxo gitxi dekoz ondiñokarren baie erramintak asko, beraz, hoba albait arinen galletak barik mareia potoloa eitten badogu, ezpabere, gure galletak Fontaneda-koak lez akabauko daurie.

GURE BAZTERRAK

BEGOÑAKO ELIZA

Iñaki Uriarte



zuten eta 1876 urtean kalteak konpontzen hasi ziren. Azkenean, lanak 1901ean altxatutako dorrearekin amaitu zituzten. Dorre hori Jose Maria Basterra arkitektoak diseinatu zuen. Azken urteotan dorre hori zaharberitzeko eta argiez hornitzeko lanak egin dituzte.

Begoñako Ama Birjina 1738an Bizkaiko zaindari izendatu zuten. Eliza ikuspegi erlijiosutik ez eze ikonografia alde- tik ere balio handikoa da. Sinbolo arkitektoniko itzela da.

Bere egoera topografikoari esker abantaila handi bi dauzka. Batetik, bere atriotik eta, jakina, bere dorretik, Bilbo ia osoa ikusten da, batez ere alderdi zaharra. Bestetik, Begoñako elizako aurrealdea, batez ere azken urteotako argiztape- nari esker, Bilboko bazter askotatik ikusten da, ikono itzela izanik. Kasualitate bitxi baten ondorioz, Begoñako eliza Bil- boko Gran Viaren ardatzaren balizko jarraipen artez dago.

Begoñako elizatean, Bilbo huriaren ondoko nekazari herrian, bazen eliza bat herritarren maitasun eta fede gartsua biz- ten zuena. Andra Mariaren irudiak gor- puztu zuen herri sinismen hori.

1511 urtean Santxo Martinez de Arego harginak perimetroko harrizko hor- mak izango zirenak diseinatu zituen. Hura eliza luze eta gurutzadura bakoa zen. Aregok estaldurako gangei eta hiru nabeei eutsiko zieten zutabeak ere disei- natu zituen.

Beste asko lez, Begoñako eliza urte luzeetan eraiki zuten. XVII. mendearen hasieran amaitutzat jo zuten. Gotiko berantiar estilok eliza dugu, beraz.

Geroago, gerra karlistek hondatu

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea
ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarondo,
Irupe Berro,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta

Dabid de Haro
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,
Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martinez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200

BI BIKOTE MAHATSORRI BERTSOLARI TXAPELKETAN

*Bizkaiko Bertsolari txapelketak
abenduan eduki du bere amaiera.
Espero bezala, Igor Elortzaren eta
Unai Iturriagaren arteko dema batekin
amaitu zen. Gazteena gailendu zen
sprint luze baten azken metroan. Gu
mahatsorrien lanari begiratuko diogu,
jakiteko zertan eta zelan ibili diren
gure bertsolariak.*



*Testua: Joxin Iturrioz
Argazkiak: Iñigo Azkona*



**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**

Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935
Santutxu kalea, 37
Tfnoa: 944 128 714

www.bilbaoweb.com/Spedro
E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

O.P.E.: 03/9/97



Santutxuko poteo gunean

Bigarren egin zuen eskualdeko sailkapen saioan Oihana Bartrak. Bigarren Bilbo eskualdeko finalean ere. Bigarren Arrigorriagako kanporaketan, eta bigarren sailkatu zen puntutara Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurreetarako. Aurretik bigarren egin zuen eskolarteko Bizkaiko finalean. Logika gupidagabea. Bigarren egitea tokatzen zitzaion Getxoko finalurrekoan, eta bigarren final handian, mano-manoan gauzak estu ipiniz Unai edo Igorri.



Oihana Bartra, erdian, Santutxun udaberrian jokaturako sailkapen saioan.

Baina ez zen Oihanaren bigarren parte-hartzea Bizkaiko txapelketan, lehenengoa baizik. Logikak ez du huts egiten, baina ondo aplikatzea eskatzen du. Lehenengo parte-hartzean hirugarren egin zuen Oihanak Getxoko finalurrekoan, eta ez zen sartu final handian. Finalurrean lan polita eginez bukatu du Oihanak bere lehenengo parte-hartzea. Seguru eta txukun. Progresioan joan da, gero eta aldapa malkartsuagoan bere bidea eginez, beti zegokion irabazlearen atzetik. Neguko elurretara ohitzeko bigarren parte-hartzeari itxaron beharko diogu. Eta gailurreko puntan ikusteko itxaropena sortu digu Oihanak. Bi urte barru. Eta orduan ez gara bigarrenarekin konforma-

tuko. Goraino iristea eskatuko diogu. Ezagutzen genuen Oihana bertsotan. Orain plazara salto egin duela esan genezake. Eta mahatsorriok bertsolari bat irabazi dugula. Bi urte izango ditu bere bertsogintza garatzeko eta sendotzeko, eta gorantz beste bi salto egiteko.

ARKAITZ ESTIBALLES

Noski, ez zen mahatsorri bakarra Bizkaiko txapelketan. Arkaitz Estiballes finalean izan genuen orain dela bi urteko txapelketan. Eta aurtent finalaurreetara zuzenean zegoen sailkatuta. Ez zuen aurretik txapelketako saiorik egin, beraz. Igorren tokatu zitzaion, lehenengo finalurrekoan. Ez zuen egun onik izan. Askoz maila handiagora ohi-


tuak gauzka. Burua beste nonbaiten ei zeukan, zuela gutxi atxilotutako lagunaren ziegan, alegia. Ideiak garatzea izaten da Arkaitzen merituetako bat, eta ideia barik geratu zen Igorren, ideiak urrutiko lurraldetan galdurik zebiltzalako. Ez dut uste Arkaitz bertsolari-berbetsolaria dela inork ukatuko duenik. Plazaz plaza erakutsi du, eta erakutsiko duelakoan gaude. Baina bi urte itxaron beharko dugu txapelketan berriro ikusteko, ustez goi mailan berriro. Zalantzarik gabe bera izango da finalean sartzeko faboritoetako bat. Bide onean doa bertsolaritza. Inoiz baino bertsolari gehiago dago, eta gazteak indartsu eta gogor datoz. Plazan leku gutxi dago, ordea, guztientzako. Eta

plazan lekua egin nahi duenak destakatu beharra dauka. Arkaitzek jarraitu beharra dauka, serio lanean, plazan demostratuz txapelketa honetan ezin izan duena. Hemendik bi urterako utzi gabe, prestatzen eta entrenatzen jarraitzea gomendatu beste irtenbiderik ez dagoela uste dut. Progresioan doan prestaketak emango du berea, lehenengo plazan, eta ondoren bi urte barruko txapelketan. Eta orduan onena emateko gauza dela ikusiko dugu. Gauza bera esan beharko genioke Oihanari. Lan ona egin du, baina jarraitu beharra dago. Orain plazaz plaza. Progresioan jarraitu behar du, prestatzen, lan egiten, poliki-poliki destakaturik. Eta bi urte barru goia emanez. Eta gero jarrai-

tu, plazan lekua eginez. Beti gorantz, beti aurrera... Jon Eizmendi eta Matxalen Zabaljauregi genituen gure eskualdeko beste partaide biak. Jonek Santutxun jokaturako sailkapena irabazi zuen. Bertsotarako bere berragerpena izan zen Santutxukoa, lehendik plazan ibilitakoa baikenuen Jon. Basaurin, eskualdeko finalean, ordea, ez zuen bererik eman, eta hirugarren egin zuen. Itxaropen handiak sortu zituen Jonek, baina hustuz joan da bere despentsa.


PLAZA GIROA

Afari giro goxoan jokatu zen Santutxuko saioa. Plazakoagoak ziren Basaurikoa eta Amoroetoko kanporaketa. Eta agian plazako urduritasunak traizioa egin zion Joni. Eta



ondo hasi baina beherantz egin zuen Amoroetoko txapelketan zehar bezala. Itxaropena sortu genuen, eta desilusioan bukatu. Hurrengoan beharko.

Matxalenek ere Amoroetoko kantatu zuen, Jonekin batera. Bere saioa egin zuen. Eskualdean egindako saio bietan baino zertxobait hobetuxego. Gustura geratu zen. Saio txukuna nahi, eta saio txukuna egin. Gehiago eman dezakeela? Ez da hori, ordea, bere lehentasuna, eta bere mailan ondo aritu zen. Helburuak bete zituen, beraz. Gazi-gozaok ditu beti txapelketak, eta aurtengoa ez da hortik desbideratu. Bertsolari berri bat plazaratu digu, eta gainera indartsu. Oihanaren izena sarri entzun beharko dugu hemendik aurrera. Arkaitzek eta Jonek ez dute daukaten mailarik eman. Baina etorriko dira txapelketa gehiago. Eta Matxalen eta enparauak ere hor daude. Ez dezagun horiek ere bertsolariak direla ahaztu. Kalitatea eta ugaritasuna ez ditugu falta, bertsotan ere.



Iñaki Aurrekoetxeak 'Kabi Goitia' bertso paper lehiaketa irabazi du. Deustuko Matxintxu AEK euskaltegiak antolatutako lehiaketaren seigarren edizioa izan da aurtengoa eta bertsolari santutxutarra 'Enaizu itzartu' sortarekin gailendu da. Gazteen atalean Irati Goikoetxeak irabazi du.

Salaketak Enkestak
Txaskarrilloak
Otxarkoaga eta txurdinagan
WWW.PA-YA.ORG
Berriak Herri mogimendua Euskal kultura
Gure presoak Pa...yak baditu alternatibak

Lanbroa


ARTESANIA LOIDI
Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

BEGOÑA ETA EUSKAL KANTUTEGIA (eta II)

AURREKO ZENBAKIAN EDEGI GENDUEN ATALA ZARRATUKO DOGU GAURKOAN. ALTXOR HANDIA GALDU DOGU, BADAIGU. GITXI DIRA, BENETAN, GARAI BATEAN GURE ASABA ZAHARREK EZPANETAN IBILITAKO KANTUETATIK GUREGANA AILEGA DIRANAK. BADIRA, HALAN DA GUZTIZ BE, PERLA BATZUK ETA HEMEN EURETARIK BATZUK ERAKUTSIKO DOGUZ.

Begoña eta Euskerea



Begoña baserri mundua izan zan artean errondak kantaten ziran egun jakin batzuetan. Neskatilak batzuetan, mutilak beste batzuetan, denok batera be bai inoiz... gazte jendea baserriz baserri eta etxerik etxe ibili ohi zan kantu kantari eta, sarritan, jatekoak edo

dirua batzen. Aurreko zenbakian Santa Agedako kantu baten barri emon genduen eta BERTONeko orriotan beste urte sasoi batzuetakoak agertu doguz. Esate baterako egunokaz kantatu beharko zan urtebarriko errondea. Hona hemen Manolo Leginak kantaten

ebana:

*Urte bari ekarri txarri belarri
Dekonak ez dekonari
Nik ez dekot eta niri*

Eta Gillermo Etxebarria Arxandako pandereteroak honako kopla bi gehiagoz janz-

ten eban:

*Ezpabere arin eta
Kriskiti kausti*

Urtebarritik aurrera hurrengo hitzordua Errege egunekoa zan. Manolo Leginak BERTONen esan legez, holantsik kantaten eban:

*Apalazio zaldune
Hiru erregen egune
Martinaren kontuek
Martina harek agindu dos-
kuz
Hiru oilanda katuek
Haren hazurrek batu ezin-
nik
Guk emon du saltu bet
Tintilin tañe,
Hiru montañe,
Intxurtxu bi eta hiru kas-
tañe*

Honeek neguko solstizio-ko kantuak izaten ziran. Baina gurean udakoa be egiten zan, Donibane edo San Juan gaua. Egun hartan suak bizten ziran etxe guztietan eta ez ziran etxeetako etsaiez ahazten. Sorginez, esate baterako. Hona Gillermo Etxebarriak kantatzen eban legez:

*Nire zorroan sorginik ez
Badagoz ez badagoz ere
Hemen erre ginkeez*

Baina denak ez ziran garai samur eta alaitsuak izan. Egia esanda, gitxi ziran holango une gozo eta pozgarriak. Egunik gehienak behar gogorrari lotuta egozan. Eta gure historiako momentu kritiko batzuetan, gerra be agertu zan.

Aurreko zenbakian gerra karlistetako bertso batzuek ekarri genduzan hona. Oraingoan frantsesen garaiko beste bertso zati bat agertu behar dogu. Izan be, asko dira 1808-1814ko gatazka hartaz Euskal Herrian batutako bertsoak. Bilbo aldean be batzuk dagoz, batez be garai hartan urterik gehienetan Bilbo edo Abandoko parrokiatan euskarazko gabon kantak argitaratu izaten ebelako. XVIII. mendearen erditik 1833 urtera arte Abandoko San Frantzisko komentuan, Done Bizente elizan edo Bilboko Done Jakue elizan



kantatzeko 'gabon osasteak' plazaratu ebezan. Duda barik, euretariak asko mahatsorrien etxe eta batzarretan entzungo ziran.

Baina gerra latz harek zer kontatua itzi eban Begoña aldean. Esate baterako, 1812ko abuztuaren 12 eta 13an Bilbotik ataratako frantses armada atzera be Bilbon sartzen ahalegindu zan. Baina Boluetan Gabriel Mendizabal, Renovales eta Porlier buruzagien agindupeko tropa espainolek aurpegia emon eutseen eta atzera egin behar izan eban. Borroka odoltsu haren ondotik kantatu ei zan kopla hau

*Asi Zubibarrin da
Bolueta gino
Etzan lurrik agiri
Frantses ila baino.
Olé salada
Frantses ila baino,
Olé morena
Bolueta gino*

Bertsoa Resurrección Maria Azkuek batu eban Zornotzan, Luzia Estankonaren ezpanetatik. Zubibarrin, jakina, Boluetako zubibarrin da, garai batean Bilbora sartzeko bide nagusia.

ASAPALAK HILERO ANTOLATUKO DITU LIBURU EUSKALDUNEN INGURUKO TERTULIAK



Aingeru Epaltza idazle nafarra Deustuko Irakurleen Txokoa.

"Irakurlearen tartea" da Asapala elkarteak aurtengo plangintzan aurrera eramango duen jardueretako bat. Honen helburua, euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea da, eta horretarako hilean behin jarriko dute zita; bertan idazle euskaldun bat eta moderatzaile bat izango dira ukeraturiko liburuari buruz denon artean hitz egiteko.

Testua : Eneritz Ibarondo

Saio hauek Santutxuko AEK-n (Arbidea, 21) egingo dira. Hala ere, ez da AEK-k antolatutako gauza bat, lehen esan bezala Asapalak antolatzen du eta Mahatserriko euskaldun guztioi zuzenduta dago, AEK-ko ikasleei ere bai noski. Lekua finkoa izango den bezala, eguna ere horrelakoa izango da: hilabeteko azken asteazkenetan egingo dira saioak eta lehenengoa urtarri-

"Otsailean landuko da Joan Mari Irigoienen eleberri berria "Ipuin batean bezala" eta martxorako geratuko zaigu Jon Arretxeren 'Ekialdeko mamuak'"

laren 29an izango da, arratsaldeko 8etan. Unai Elorriaga izango dugu hemen "SPrako Tranbia" hainbat sari lortu eta hizkuntza ezberdinetara itzulia izango den bere eleberriari buruz hitz egiteko. Moderatzaile lanetan, Julen Gabiria egongo da tertulia guztietan. "Irakurlearen tartea" honetan, genero guztiak landu nahi dira. Momentuz, lehenengo hiru liburuen berri dakite


bakarrik; bi eleberri eta bidaia liburu bat. Unai Elorriagarena da lehenengo eleberria, otsailean landuko da Joan Mari Irigoienen eleberri berria "Ipuin batean bezala" eta martxorako geratuko zaigu Jon Arretxeren "Ekialdeko mamuak" bidai liburua.

DEUSTU ETA ALGORTA EREDU

Asapalak ideia Deustu eta Algortako euskara elkarteek egiten dituzten saioetatik hartu zuen. Hala ere, ez dira berdinak. Deustun adibidez, "Irakurlearen txokoa" hasi baino lehen, irakurle zerrenda bat egin zuten horrela jendea zeharka inplikatzeko lortu nahian. Algortan ordea, irakurlearen fitxak betetzen zituzten saioetara hurbildutakoekin. Asapalak irakurle zerrenda osatuko du ere bai, baina bazkideak hartuko ditu gehienbat kontuan. Hauei %10eko beherapena egingo die liburuak erosterakoan aurrez eskatuz gero. Propagandari dagokionez Deustuk daraman bidea jarraitu dute gehienbat, Algortako 'Bizarra lepoan'ek aurrekontu handiagoa baitu. Deustuko 'Berbaizu'k kartel batzuk ateratzen ditu eta zerrendan daudenei gutunak bidaltzen dizkie; honen antzerako zerbait egingo du beraz Asapalak.

LIBURU BERRIAK


Liburuen aukeraketari dagokionez, Asapalak nahiko liburu berriak izateko apustua egin du. Kontuan hartuko dute liburu atera berri denetik denbora bat utzi beharko dela ere, jendea saioetara liburuak irakurritako joatea baita bilatzen dena, gero hauen inguruan tertuliatxoak egiteko; ez dira liburuaren aurkezpen soilak izango.



Unai Elorriaga idazle getxoztarra

Deustuk, idazleak Euskal Idazleen Elkartearen bitartez lotzen ditu, Asapalak ordea, lehenengo hirurak horrela ekarriko dituen arren gainontzekoak, moderatzaile lanetan ibiliko den Julen Gabiriaren bidez lortuko ditu.

Asapalakoek esan digutenez, Euskal Idazleen Elkatearekin lan egitean, abenduan hurrengo urteko liburu eta idazle guztiak aukeratu behar dira, eta beraz, Asapalak lortu nahi duen liburuaren gaurkotetasuna ez litzateke posible izango; ezinezkoa baita hurrengo urtean argitaratuko diren liburu guztien berri izatea. Hala ere, elkartearen bitartez lotuz gero, merkeagoa izaten da.



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfnoa: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo


ADI
Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!
SAAK

Euskal Herriko selekzioa mundialean jokatzeko aukera ematen duen bideojokoa kalean da

"EUSKAL SELEKZIOAREN BIDEOJOKOA HERRI HONI EGINDAKO GURE APORTAZIO TXIKIA DA"



Josu Telleria Durangoko azokan jokoa saltzen

Testua: **Arrate Diez**
Argazkiak: **BERTON**

Abuztuko gau bateko ordu txikietan piztu zen ideia, koadrilakoekin poteatzen ari zirela Santutxuko Tortuga tabernan. Futbol makina bati begira geratu ziren Aitor Bilbao eta Josu Telleria. Buruari bueltak ematen hasi ziren imajinatuz horrelako bideojoko bat Euskal Selektioari buruzkoa, eta tabernetan jokatzeko izan beharrean etxean jokatu ahal izateko. Momentu hartan berotu egin ziren bi mahatsorriak eta nahiz eta hurrengo goizeko ajearekin ideia hura erabat ahaztuta edukiko zutela pentsatu, ez zen horrela gertatu.

Hurrengo egunean oraindik berago zeuden ideiarekin aurrera jarraitzeko asmoz eta Aitor eta Josu lankideak direnez, dei batzuk egiten hasi eta gau hartako ideiak jarraipena

eduki zezakeela konturatu ziren, posibilitateak bazeudela aurrera jarraitzeko. Lehenagotik zuten esperientzia 'Gara' egunkarian, Euskal kiniela sortzearena hain zuten.

Mahatsorri hauen lehen ideia horrelako joko bat Euskal Herrian egitea zen. Beraz, martxan jarri eta berehala, errealtateak beren lekuan jarri zituen Aitor eta Josu. Izan ere, honelako proiektu batek analistak, programatzaileak, diseinatzaileak, eta teknologia menperatzea exijitzen du eta honek guztiak aurrekontu ikaragarria eskatzen zuten. Ideia polita zelakoan, bidea jorratzen hasi eta laster konturatu ziren haiak bakarrik aurrera ateratzea ezinezkoa zela, ez baitzeukaten presupuestorik, ezta teknologiarik ere ideiarekin jarraitzeko.

Mahatsorri bik eta beste lagun batek ekin diote 'Euskal Herria mundiala!' bideojokoa- ren kaleratzeari. Hasieran lagun koadrilan sortu zen ideia dagoeneko kalean da eta Euskal Herria gainontzeko munduko futbol selekzioekin jokatzeko aukera eskaintzen digu- ordenagailuan soilik bada ere-. Egileek bideojokoa "herritar batzuk herriarentzat garatutako proiektua" bezala definitzen dute, izan ere, euskaldun asko gara Euskal Herriko selekzioa munduko txapelketan parte hartzen ikusi nahi dugunak. ESAIT taldearekin kolaboratu dute proiektuan eta produktua kalean dago hainbat pertsonaren lanari esker. Josu Telleria, Aitor Bilbao eta Juanjo Gomez bat datoz lehen esperientzia hau oso gustura egin dutela esatean.

Josu Telleriak dioskun bezala "...baina mahatsorriok oso burugogor- rarak garenez, ideiarekin jarraitzeko asmoz beste bide bat pentsatu genuen". Eta hala egin zuten, joko- a eginda zeukan multinazional batekin hitz egin zuten. Era honetan, 'Enigma' multinazional frantziarrarekin jarri ziren kontaktuan. Berau da Korea-Japon 2002ko mundialerako joko ofiziala egin zuena. Multinazional- nalekoekin harremanetan jarri eta ideia azaldu zieten, hau da, joko hori nahi zutela baina bertan Euskal Herriko selekzioa agertzea nahi zute- la. Hasieran harridura handiz hartu zuten arren, azkenean lortu zuten joko hartan agertzen ziren 32 selek- zioetatik bat kentzea (Mexiko) eta horren orde- z Euskal Herrikoa jartzea, bere arropa ofizialarekin eta guzti.



Horretarako softwarea euskaratu zuten.

ESAIT- EKIN BAT

Hasiera batetik mahatsorriek argi zeuzkaten lanaren ardatz nagusiak. Batetik, edozertarako ESAITekin kon- tatu behar zutela, hemen jende mul- tzo bat baitago Euskal selekzioaren alde lanean. Bestetik, euskaraz izan behar zuela, euskaldunak baikara. Eta gainera, umeak gai badira edozein joko ingeleseraz maneiatzeko, ez zegoen inongo aitzakiarik euskaraz ez

egiteko. Beste ardatz bat zen, honela- ko joko bat gainontzekoek zuten pre- zio berebean saldu behar zela, "ezin genuen inondik inora euskaraz eta Euskal Selektioarena zelako garestia- go saldu. Alderantziz, merkatuan zeu- den prezioetatik ahalik eta merkeen izaten saiatu gara (35.95 euro)".

Laugarren ardatz nagusia Euskal Herri osorako planteatutako joko- a sortzea da, ez bakarrik hiru probin- zietakoa. Horregatik, Josuk diosku- nez, "ez darama selekzioak daraman

ikurra, hori Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako futbol federazioaren iku- rra baita. Beraz, guk sei herrialdetako armarr- a jarri diegu, Euskal Herri osokoa izan dadin". Bidea jorratuta, frantziar multinazionalarekin hiru urtetarako lizentzia eta hogeita bost mila ale kaleratzeko akordiora heldu ziren. Beraz, proiektuan parte hartze- ko beste bati esan zioten, Juanjo Gomez, eta hiru- ren artean dirua jarri zuten aurrera jotzeko. Hala, buruhauste handi- ko hilabete batzuk pasa- tuta, azaroaren 26an aur- keztu eta jada bideojo- koa kalean da.

JOKOAN HIRU AUKERA
Bideojokoa PC-rako dago diseinatuta eta hiru

erataro jokatzeko aukerak eskaintzen dizkio erabiltzaileari. Batetik, lagunarte- ko partiduak joka daitezke makina- ren aurka. Horretarako, zuk zein selekzio izan nahi duzun eta zein selekzioaren kontra jokatu nahi duzun aukeratu duzu. Honez gain, futbol zelaia zein izango den, eguraldia, edo ta partiduaren iraupena ere auke- ra daitezke, beste hainbat faktore- ren artean. Bigarren aukera sarean joka- tzea da, konektatuta dauden bizpahiru ordenagailuetan instalatu eta zure aur- kariak beste ordenagailuetan daude- nak izan daitezke.

Eta hirugarren era munduko txapelketa jokatzeko da. Azken modalitate honetan makinak zozketa bat egiten du eta futbol talde batean kokatzen zaitu. Era honetan, sailkapenean azken hamaseirenetan hasi eta parti- duak irabazten zoaz, honela, erabil-

GOIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

Bikoitz
ARROPA ★
ZILARRA ★
OPARIK ★
Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

BERTON DUGU

HIRU BELAUNALDIEN INTERESA

Mahatsorri hauen hasierako ideia jende gaztearentzat zuzenduta dagoen produktua egitea zen baina multinazionalarekin negoziatzen ari zirela, gomendatu zieten ez pentsatzeko bakarrik gazteriari zuzendutako produktu bat bezala, haien esperientziak argi utzi baitie honelako joko motak gurasoek erosten dutela baina ez umeak bakarrik jolasteko baizik eta beraiek ere jolasean aritzeko asmoz. Beraz, zazpi urtetik aurrerako guztiek jokatzeko moduko bideojokoa da hau.

Durangoko azokan salmentetan izandako esperientziarekin hiru motatako erosleak izan dituztela diote. Batetik, zortzi-hamasei urte bitarteko publikoa, hauek "flipatuta" geratzen ziren bideojokoarekin, eta gainera promozio gisa bufanda bat ere eskura baitaiteke. Bestetik, hamasei-hogeita hamar urte bitartekoak, Jokoa beraiantzako erosten dutenak, eta hirugarren belaunaldia gurasoena da. Hauek, bai umeak zein haiek jokatzeko erosten dute. Bideojokoak, beraz hiru belaunaldi ezberdinen interesa piztu du.





tzen duenaren trebeziaren arabera lor dezakezu finalera heltzea edo ez. "Jokoa ez da batere zaila eta martxan jartzeko bost umerekin egin genuen proba eta benetan harritzekoa da umeek daukaten abilezia inoiz probatu ez duten joko batean aritzeko, segundo batzuetan erabat kontrolatzen baitute Jokoa". Bestetik, jokalariei ez diete izen abizenik jarri eztabaida piztu ez dadin bata ala bestea aukeratzeko. Hamaikakoa Euskal Herria 1, 2, 3... izenez dago osatuta. Beraz, Jokoa instalatzerakoan norberak aukeratzen du nahi duen hamaikakoa, aukeratu bezain laster jokalarien kamisetetan automatikoki euren izena agertuz.

BIDEOJOKOAREN FINANTZAKETA
Proiektuaren finantzaketaren alde nagusia hiru lagunek jarritako dirua izan da. Honez gain, bideojo-

koa lau futbol zelaietan garatzen da eta hauek ere errealitateko futbol zelaiak bezalaxe publizitate esponsorrak dituzte. Enprekin kontaktatzen hasi eta akordio komertzialak lortuz joan dira finantziario eta promozio lanetarako. Josuri jendearen harrera orain arte zelakoa izan den galdetzerakoan, "jendeak oso gustura hartu du ideia eta orain arte bideojokoak daraman ibilbide txikian harrera oso ona izan du" diosku.

Proiektuaren emaitzari dagokionez, oraindik ezin dute balantzerik egin. Durangoko azokan salmentan jarri zuten arren, oraindik goiz da harrera totalaren gaineko balorazioak egiteko, hala ere, Durangon saldutakoak ez dira kexatzen. Izan ere, garai hauek aproposak dira salmentetarako eta gabonak bueltan gauzak argiago izango dituzte mahatsorri hauek.




Kupoi hau Santutxuko AEKn (Arbidea 21) aurkeztzen duenari **BI EUROKO DESKONTUA** egingo zaio 'Euskara Mendian' liburua erosterakoan.
BERAZ, 5 EUROTAN SALDUKO ZAIO.

e l k a r r i z k e t a

Xarles Cepeda

*Urdaibaiko natur gida
"Presio inmobiliarioa,
baso politika eta azpiegiturak
dira Urdaibairen
kontrako mehatxuak"*



Xarles Cepeda mahatsorriarengana joan gara Busturiko San Kristobal auzora. Bertan, padurak begien aurrean genituela, Urdaibaiko egoeraz eta arriskuez galdetu diogu. Santutxu utzi zuen Altamirako baserri batera joateko eta bere bizitzako ametsa betetzeko. Gaur egun natur gida da erreserban eta ingurune horrekin guztiz maiteminduta badago ere, begiak zabalik ditu zema handiak baitaude eremu pribilegiatu horren gainean. Batzuk urrutitik datoz, marea beltza kasu. Besteok etxekalte batzuen diru grinaren ondorioa dira.

*Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: David de Haro*

Santutxun bizi zinenean talde ekologista batean ibili zinen. Zertan?

Gu EKIIn egon ginen eta batez ere borroka antinuklearrean aritu ginen. Auzoari dagokionez, bertako berdeguneen alde ibili ginen. Garai hartan Santutxun gune berde asko galtzen ari ziren, Karmelokoa esate baterako, eta gu bide hori salatu genuen. Baina egia esanda denbora gutxi eman genuen geroago taldea sakabanatu zen eta. Ni hona etorri nintzen [Urdaibaira] eta talde ekologistetan eta naturaren aldeko boluntarioen elkarteetan sartu nintzen.

Zelan izan zen Santutxutik Urdaibairako jauzi hori?

Nire asmoa beti izan da naturaren alde lan egitea. Formakuntzaz ingurugiro teknikaria naiz eta gero natura gidarien ikastaro trinkoa egin nuen. Orduan hemen horrelako elkarte edo enpresatxo bat sortzeko aukera agertu zitzaidan. Ikastaroan egondako lagun batzuk batu ginen eta hasi ginen gure benetako bokazioa garatzen. Niretzat pribilegio handia da gustura egiten dudana lan hori nire ogibidea izatea.

Horrela sortu zen 'Aixerreku' elkarte?

Bai. 1992 urtean izan zen.

Eta zertan dihardu 'Aixerreku'k zehazki?

Hasieran elkarte bat egin genuen. Natur giden ikastaro hartan ikasitako guztia, gure ustez nahiko ona izan zen, erakutsi nahi genuen. Gure inguruan jende gutxi zekien Urdaibai zer zen, zerengandik babesten zen. Horrela elkarte ireki genuen baina irekitakoan hasi zitzaizkigun zerbitzuak eskatzen. 'Zergatik ez diguzue egiten ibilbide bat umeei erakusteko?' eta antzeko eskariak egin zizkiguten. Gu langabezian geunden eta hasieran dohain egiten genuen lan hori baina gero konturatu ginen aukeratu behar genuela. Batzuek pentsatu genuen profesionalki antolatuta behar genuen. Horrela sortu zen Urdaibaiko natur gidarien proiektua eta gaur arte. Orain ibilbide ekologikoak egiten ditugu baina bestelako lanak ere, ikerketak esate baterako. Beti Urdaibai inguruan.

Eta zu zehazki zertan zabilta 'Aixerreku'n?

Ni natur gidaria naiz eta orain Urdaibaiko patronatuarentzat ingurune heziketari buruzko lan bat prestatzen ari gara. Helburua dokumentazioa eta informazioa zabaltzea da eta honez gero hiru urte egin dugu. Urdaibaik dituen baloreak ezagutzera eman nahi ditu Patronatoak bai bertan bizi garenon artean baita bisitari datozenen artean.

Gidari lanean nondik ibiltzen zara Urdaibain barrena?

Guk badauzkagu ibilbide jakin batzuk, bakoitzak ekosistema berezi bana erakusten duena. Bat padurarena da eta hemen bertan Busturiko San Kristobal auzoan hasten da. Beste bat landazabalarena da, baserria eta bere inguruko ekosistema erakusten duena, eta hori Oma aldean egiten dugu. Eta hirugarrena artadiarena da, Atxarre aldean egiten duguna. Horiek hirurak dira gehien egiten ditugunak. Badira gehiago, arestiena esate baterako. Aresti bakarra dago Urdaibai osoan, Arratzuko Golan, txikia baina seku-

lako ederra eta zaharra. Eta gero eskakizun zehatz bat egiten bazaigu ibilbide egokia prestatzen dugu. Esate baterako unibertsitatetik datoz Urdaibai osoa ikustera, ba guk ibilbide 'a la carta' prestatzen diegu.

Ze motako jende etortzen zaizue bisitari?

Batez ere eskoletatik datoz. Udan jende gutxi dator. Turismo ekologiko hori hemendik pasatuko da baina ez du zerbitzurik eskatzen. Eskatzen dutenek errepikatzen dute baina...

Turistek badaukate aukera horren berri?

Eduki badaukate baina igual ez dago behar bezain zabaldurik. Nekazalturismo baserri batzuekin harremanetan gaude eta eurek bai bidaltzen digute jendea eta horiekin oso ondo. Batez ere madrildarrak eta katalandarrak izan ohi dira...

Bisitari horiek zer deritzote Urdaibairi zuen bidez ezagutu eta gero?

Jendeari lehenengo begiradan gustatzen zaio Urdaibai. Baina gainera azalpenak ematen dizkiezunean askoz be gehiago baloratzen dute. Urdaibai batez ere espazio kulturala da. Natura aldetik sekulako baloreak ditu baina kulturak eragin du natura aberats hori. Kultura eta natura harremanetan jartzen duzunean jendeak askoz ere errazago ulertzen du paisaia. Eta paisaia hori hain ederra izanik... Baina hau ez da inongo leku natural ikutu bakoa. Hemen aspalditik bizi da gizakia eta haren eraginez egindakoa da. Horrela errez ikusten da hala oreka nola arazoak.

Zelan dago Urdaibai gaur egun?

Alderatzen duzunaren arabera. Beste eskualde batzuen aldean ederto dago baina errealitatea bertatik bertara ikusten baduzu problemak berehala ikusten dituzu. Zergatik? Presio larregi daudelako toki guztietatik. Esate baterako, presio inbiliariora itzela da, sekulakoa. Hemen lur urbanoan 15.000 etxe eraiki daitezke. Baina jendeak ez du hori gura. Jendeak txaletak nahi ditu tokirik politenean. Eta horrek kalte handiak dakartza berarekin: etxeaz gain, errepideak, saneamendua,...

Presio inbiliariora da arriskurik handiena gaur egun?



Une honetan bai, duda barik. Baina badira gehiago. Baso politika batez ere. Euskal Herri osoan arazoa da baina hemen larriagoa da hemen Euskal Herriko padurarik zabalena eta garrantzitsuena dagoelako. Plantazioak ebatitzeko moduarekin, matarrasarekin hain zuzen higadura edo erosioa areagotzen dute eta arazo larriak sortzen dituzte estuario osoan. Urek sedimentu asko garraiotzen dituzte eta itsasadarra gainezka egiten dute.

Hortik dator draga garbiketa hain sarri erabili beharra?

Hori da. Ia urtero edo bi urtean behin garbitu behar da eta lokatz horiek gehienak barrualdetik datoz. Pinuak edo eukaliptuak denak batera kentzen dituzte mendi sail horiek soilduta gelditzen dira, biluzik, eta higadura areagotzen da. Pinuak egotea Urdaibaiko erreserbako planean onartuta dago, baita zehaztuta ere non egon behar den. Baina forestalistek toki guztietan gura dute pinua. Zer gertatzen da? Aldapa handietan, nekazaritzarako beharko lirakeen eremu lauetan... presio larregi dago, pinu pilo bat landatzen dute eta gero kentzerakoan lurra biluzik

geratzen da eta hortik datoz arazoak. Eta azkenaldian hasi den beste arrisku berri bat komunikazio azpiegurutak dira.

Gernikako saihebidia?

Bai, hori bat da. Baina Bermeon beste bat pentsatuta dago. Eta Gernika eta Bermeo artean herri askotan saihebidia pentsatuta daude. Orduan ia-ia autopista berri bat egingo litzateke Gernika eta Bermeo artean. Eta gainera aukeretako bat da autopista hori paduren gainetik eraikitzea. Beraz, kontu larria da eta hemendik hamar urtera garatu behar dute eta beharbada itzelezko sarraski ekologikoa ikusiko dugu hemen. Gaur egun Gernikan ikusten dugu. Legea aldatu behar izan dute saihebidia Forura eramateko.

Arriskuak aipatu dituzu baina badago lege bat Urdaibai babesteko. Betetzen dute?

Legea betetzea gero eta zailagoa da hemen. Ni ez naiz kontu horretan aditua baina Urdaibaikoa legea da, goren go mailakoa beraz. Eredu izan da Europa osoan. Sekulara apostua izan zen 1989an, seguruenek politikoez

TRUK LIBURU ETA DISKAK

ARIMA BELTZA	PANTXOA TA PEIO
BLUES SUSTRARIA 16,00 €	LAPURTAR KOBLARIAK 17,50 €
TXAPELPUNK	UGA
BLA, BLA, BLA, STOP 14,90 €	BEREZIANAK 17,40 €
LOS NUEVOS PERROS	IPUIN BATEAN BEZALA
LOS NUEVOS PERROS GUARDIANES SERGE HALIMI TXALAPARTA 13,00 €	Ipuin batean bezala JOAN MARIA IRIGOIEN ELKAR 15,50 €
LOS CAMINOS PERDIDOS DE AFRICA	HARRY POTTER ETA SUAREN KALIZA
LOS CAMINOS PERDIDOS DE AFRICA JAVIER REVERTE ARETE 20,50 €	HARRY POTTER ETA SUAREN KALIZA J.K. ROWLING ELKAR - SALAMANDRA 16,50 €
AUKERATU ZURE LIBURUA, DEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU ZURE ETXEAN	bertu!
LIBURUDENDAKO PREZIOAN ETA BIDALKETA GASTURIK GABE	TRUK 902 45 12 12 IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

K A R K A

zutelako jakin zer egiten zuten. Batez ere arlo inmobiliarioan. Gero konturatu ziren lege horrek espekulazioa murrizten zuela oso. Horregatik asko lege horren kontra daude.

Marea beltza hona helduko ote da?
Bai. Duda barik. Guk ditugun datuak oso larriak dira. Matxixakotik zortzi millatara hiru kilometro karratuko fuel orban bat dago. Eta Asturias eta Cantabria artean badago beste bat 56 kilometro x 36 kilometro azalerakoa. Eta hori honantz dator. Nire esperantza da Landetara joango ote diren eta hango kostaldea hondartza da gehiena eta han errazagoa izango litzateke garbiketa. Haitzetara badator, gaitza izango da garbiketa. Zelan garbituko dugu Ogoño? Dator-kiguna, gainera, galipot-galipota da, lodilodia eta kutsakorra. Eta ematen dit ez garella ohartzen arriskuaz.

Zein da Urdaibaiko zure bazterrik kuttunena?
Matxixako da bat, Bizkaia eta Gipuzkoako itsasmutur ausartena da. Gero padurak, jakina, daukaten soinuaz, paisaiatz eta aniztasunaz. Artadiak ere, batez ere Atxarre eta Ereñozar leku magikoak. Eta euren barrenean santutegi naturalak daude. Eta horiekin denekin batera, Ogoño, itsasotik ikusita. Jende gehienak ez du ezagutzen baina hori da Euskal Herriko lekuri harrigarriena.

ZORTZI GALDERA LABUR

Liburu bat:
'Cien años de soledad'.
Kanta bat:
Silvio Rodriguezen baten bat.
Talde bat:
Midnight oil.
Film bat:
Jean Renoir-en 'Esta es mi tierra'.
Ianari bat:
Gure amak prestatutako piper beteak.
Izen bat:
Maialen.
Toki bat:
Antzora (Ibarrangelu).
Ametz bat:
Inperio guztiak erortzea.

Zuenean, nork ekartzen ditu gabonetako opariak?

	BEATRIZ (SANTUTXU) GURE AITA ETA GURE AMAK. BESTELA, OLENTZEROK. ETA ONDO PORTATZEN DA.
	SERGIO (SANTUTXU) HIRU ERREGAEK. BETIDANIK. OSO KRISTAUAK GARA ETA EUREK EKARTZEN DIGUTE. EGIA ESANDA, TXIKITAN HOBETO PORTATZEN ZIREN, ORAIN BAINO.
	JUANRRA (SANTUTXU) NORMALEAN OLENTZEROK EKARTZEN DITU OPARIAK. ERREGAE EGUNEAN ERE ZEOZER JAUSTEN DA, GAUZA PRAKTIKOAK, ARROPA ETA DIRUA BATEZ ERE.
	AINARA (SANTUTXU) OLENTZEROK. BETI OLENTZEROK. NOIZ-BEHINKA TXARTO PORTATU DA BAINA GEHIENETAN OSO ONDO.
	JOANA (SANTUTXU) GUREAN OLENTZEROK ETA ERREGEEK. BI EGUN HORIETAN EGITEN DUGU.
	KARMELE (TXURDINAGA) NIK NEUK. ORAIN NIRE SEME-ALABAK HAZITA DAUDE ETA HORREGAITIK NIK NEUK DAKARDAZ OPARIAK. BAINA NIRE LOBA TXIKIEI OLENTZEROK EKARRI DEUTSEZ.
	HARKAITZ (SANTUTXU) OLENTZEROK. BETIDANIK. EZ DA PORTATZEN EZ ONDO EZ TXARTO. NORMAL.
	AMAIA (SANTUTXU) OLENTZEROK. BETI OLENTZEROK EKARRI DIZKIGU. ETA EZ DAUKAT KEXARIK.

E R R E T A N

Campo Volantineko pasealekuak badauka segidarik

Abenduaren 23an ireki dute Unibertsitateen etorbide zaharberritua

Begoña eta Deustua arteko pasealekua zabalik dago honez gero. Urtebete eta erdiko lanak amaitutakoan ibai ondoko ibilbide dotorea hiritar guztientzat ireki dute. Espaloi zabal bat, arbolak eta bidegorria dauka pasealeku berri horrek. Gehien-gehiena, ibai gaineko egitura bati esker.

Abenduaren 23an Bilboko alkate Iñaki Azkunak Unibertsitateen etorbide zaharberritua zabaldu zuen. Eguerdiko ordubatean egin zuten ekitaldi ofiziala. Salberen eta Deustuko zubiaren arteko zatiak urtebete eta erdi eman du obretan. Trafikoa ere eten edo behintzat murriztuta egon da denboraldi batez.

Oraín, lanok amaituta, Unibertsitateen etorbide 645 metro luzean espaloia -lau metro zabal-, bidegorria eta erdiko lorategitxo arboladuna atondu dute. Guztira, bederatzi metro zabal, oinezkoen eta txirrindularien gozamenerako. Trafikoak, lehengo bere horretan segituko du, norabide bakoitzeko karril bana hain zuzen.

Unibertsitateen etorbidea egokitutakoan, Bilbok pasealeku luze bat dauka ibaiaren eskuinaldean. Izan ere, Bilboko Udaletxetik hasita eta Campo Volantin osoa zeharkatu ostean oinezkoak Unibertsitateen etorbide-tik segituko du etenik gabe harik eta Deustuko Botika Zaharreko parkera iritsi arte. Ibai ondoko ibilbidea, oraingoz, Euskalduna zubiaren parean amaituko da.

Bestalde, ibaiatz bestaldean ere antzeko ibilbidea prestatzen ari dira. Begoñako zubitik hasita Uribitarte, Guggenheim museoa eta laster zabalduko duten Abandoibarrako pasealekua izango dira ibilbide horretako mugarriak Euskalduna zubiraino heldu arte.

IBAI GAINEAN

Gauza jakina da Unibertsitateen etorbidea oso kale estua zela. Oraingoan, esan legez, Bilbao Ria 2000 enpresak egindako obrei esker espaloi bederatzi metro zabal atondu dute. Horretarako ibaiari toki apur bat kendu behar izan diote. Izan ere, zutoin sendoak jarri dituzte ibaian eta gero haien gainean sostengaturik egokitu dute pasealeku zabalberria.

Beraz, esan liteke pasealekua ibai gainean dagoela. Hala ere, ibaiari ezin zaio zabalera murriztu, bestela uriola



arriskua nabarmen areagotuko litzateke eta. Ondorioz, obra egin ostean pasealeku azpikoa plakez itxi badute ere, ez dago guztiz zarratuta eta ibaiko urek bertatik pasatzen dute. Ibaiak, diote adituek, ez du zabalerrarik galdu, lehengo bidetik segituko ei du.

FALTA DENA

Obra osoa biribiltzeko Aita Pedro Arrupe zaldaina eta Abandoibarrako pasealekua amaitzea baino ez da falta. Zubia ia amaituta dago, egurrezko azala ipintzea besterik ez zaio falta. Zaldaina hori Deustuko unibertsitatearen aurrean dago eta oinezkoentzat baino ez da izango.

Eta ibaiatz bestaldeko pasealekua ere laster jarriko dute erabilgarri. Egunokaz lorategietako lanak amaitzean daude eta behegaineko azken lauzak ere ia-ia ipinita daude. Dendena herritarren esku jarriko dutenean paseo politak egingo dira Ibaizabaleko ibarretatik, antzina Deustua, Abando eta Begoña izan ziren parajeetan.


Euskal liburu, disko eta bideoen azoka antolatu du Txurdinaga eskolak seigarren aldiz

Txurdinaga eskolakoek, sasoi honetan ohi den bezala, "Durango txikia" antolatu dute. Lehen hezkuntzako eraikineko sarrera eta liburutegia liburutze bete dituzte euskarazko ekoizpenaren erakusgarri eta umeen gozagarri.

Guraso elkarteko aitek eta amek esan ziguten bezala 450tik gora liburu, disko, cd eta abar eskaintzen dira prezio ezin eskuragarriagoetan; %15etik %25 arte merkeago eros daitezke liburuak.

Jose Alonsok, Ikasleen Guraso Elkartekoak azaldu zigunez, irakurzaletasuna bultzatu nahi dute ikasleen artean. Horretarako umeek aukera izaten dute eskola orduetan liburu horiek guztiak lasai ikusi eta aztertzeko. Gainera urtero idazlearen bati dedikatzen diote azoka. Aurten Mariasun Landaren txanda izan da. Haren liburuekin txoko bat osatu eta haren biografia, sari eta idazlanekin orritxoak banatu dituzte. Beste helburuetako bat da, gurasoei hurbiltzea eta ezagutaraztea euskarazko produkzioa, eta hala, bide batez, erraztu, gabonak ate joka ditugunean, erregeei edo eta Olentzerori oparien artean liburuaren bat sartzea. Bi helburu hauek uztartu nahian urtero burutzen dute abenduko liburu eta disko azoka arrakastatsu hau.

Maite Zabaljauregik, eskolako ikasketa buruak, adierazi digunez arrakastak arintzen du prestatzeko eta burutzeko egin beharreko lan mardula. Lehenbizi Zabaltzenekin harremanetan jarri, ondoren liburuak aukeratu eta ale bana eskolara ekarri behar dira. Abenduaren



hasieran irakasle eta gurasoen artetik gora saldu dute aurtengoan eta txandak antolatu eta azoka gunea atondu 10,11 eta 12an 16:30etatik 18 arte atek zabaltzeko. Baina hor ez da bukatzen, ondoren liburuen zerrendak egin, bila joan, paketeak egin eta azkenik 18 eta 19an banatzen dira. Jose Alonsok IGEko partaideak azaldu zigunez 570 liburu-

165 familiarengana heldu dira. Aurtengo libururik salduenen artean Harry Potterrenak eta Gal-tzerdi Suizida daude eta gazteago-keen-tzat Hiztegi jolastia eta Eta Zer? Bildumarenak.

Zorionak eta aurrera.



Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

SANTUTXU SPORT

Kirolak
Punta-puntako kirol markak

Karmelo 9 Santutxu 94 412 37 01

Manifestazio multzotsuak Santutxun askatasun demokratikoen eta presoen eskubideen alde

Kasu bietan plataforma zabalek egin dituzte deialdiak

Abenduaren azken egunetan manifestazio zabal bi egin dira Santutxun askatasun demokratikoen eta presoen eskubideen alde. Kasu bietan deialdia plataforma zabalek eginikoak izan dira. Abenduaren 20an 'Ideia guztiak,

proiektu guztiak, kolore guztiak' leloa aldarrikatu zuten autodeterminazio eskubidearen aldeko pankarta baten atzetik. Hilaren 25ean, berriz, presoen aldeko manifestazioa egin zuen 'Herrira' plataformak.

Abenduaren 20ko deialdia Santutxuko hiritar talde zabal batek egin zuen. Euskal Herrian askatasun demokratikoak arriskutan daudela oharturik, auzokide horiek 'ideia guztiak, proiektu guztiak eta kolore guztiak' lelopean egin zuten deialdia. Arratsaldeko zortzietan Karmelo plazatik 450 lagunek manifestazioa hasi zuten.

Santutxuko kaleetatik abiatu ziren eta ibilbideko hiru tokitan leloaren zati bana zeramaten pertsonak batu zitzairen. Manifestazioaren aurrealdean bost neska dantzariz jantziek ikurriña eraman zuten. Atzerago, pankarta, Santutxuko pertsona ezagu-



PRESOEN ALDE

Eguberri eguneko iluntzean, oster, presoen aldeko manifestazioaren txanda iritsi zen. Azken urteotako hitzordu finkoa bihurtzen ari da abenduaren 25eko manifestazio hori. 'Herrira' plataforma zabalaren deialdia izan zen. 'Herrira' hilero-hilero egiten du presoen eskubideen aldeko manifestazioa. Abenduko hilaren 25ean egiten badute ere, gainekoak hilaren bigarren barikuan egin ohi dituzte.

Arratsaldeko zortzietan Ritxi plazatik bostehunen bat lagun abiatu zen. Bi zutabe osatu zuten eta Karmelo kaletik gora batek Santa Klaratik jaitsi zen Zabalbide eta Santutxu kaletik ibili ostean Karmelora itzultzeko. Besteak Iturriagatik Basarratera egin zuen gerotxoago Karmelo plaza bueltatzeko. Biak Karmelo plazan zeudela ekitaldia amaitu zuten.

nen eskuetan. Manifestariak ikurriñak eta faxismoaren aurkako ikur eta bandera ugari erakutsi zituzten.

Manifestazioan pankarta bi ez eze presoaren argazkiak eraman zituzten manifestariak.

PA...YA EGUNA 2002

Azaroaren 14an beste behin ere parranda prestatu zuten Pa...yako kideek. Goizez Otxarkoagako plazan Lenin eta Marx-en irudi berrituak ezarri behar bazuten ere, arazo 'teknikoak' zirela medio ez zuten egin. Bai, ordea, geroko poteoa trikitixaren doinuez lagunduta, bazkaria eta arratsaldez, dantzaldia konpartaren txokoa. Giro polita edozein adinakoentzat, argazkiak islatzen duen legez.



Txan magoak magia irakatsiko du urtarrilan

Asapala Kultur Elkartek Txan mago ospetsua ekarriko du Santutxura magia ikastaro bat eman dezan. Urtarrilaren 10ean eta 11an egongo da lehenengo egunean arratsaldez eta bigarrenean goizez. Ikastaroa 13 eta 16 urte bitarteko gazteentzat pentsatuta dago.

Txan magoarekin magia ikasi gura dutenek hiru bide daukate: 944735448 telefonora deitu, asapala@euskalnet.net helbidera mezu bat bota edo elkartearen lokalera joan (Iturriaga 55, behekoa ezkerrean). Ikastaroan izena emateko prezioa 20 eurokoa da. Txan magoak Santa Martan (Karmelo ikastolaren haurtzaindegian, metro geltokiaren ondoren) emango ditu bere eskolak. Jakina, euskara hutsez. Guztira sei ordu izango dira. Barikuan 17:30etatik 20:30etara eta zapatuan goizeko 10:30etatik 13:30etara.

ERROTONDA BERRIA

Modan dagoelako edo, beste errotonda edo biribilgune bat edukiko dugu Bilbon. San Isidro eta Basilikaren artean dagoen ormatzarran konpoketa lanan hasi dira dagoeneko, eta bide batez edo, ondoan arazorik ematen ez zuten bidegurutzearen ordean errotonda handi baina handiagoa izango dugu. Kontuz bihurtzea hartzean! Astiro joan!



PINTADA FAXISTAK ZABALBIDEN ETA TXURDINAGAN

Espainiako konstituzioaren egunaren bezperetan Arabellatik Txurdiragarako tartean, Zabalbideko zenbait hormetan Frente Nacional deritzan taldearen pintada ugari agertu ziren, etorkinen aurkakoak, ezkerreko jendearen aurkakoak ere, eta orokorrean, Espainia goraituz.



E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K

Asanbladak hasierako helburuari eustea onartu zuen gehiengo zabal batekin

KARMELO IKASTOLAK HERMANITAS DE LOS POBRESEKO ORUBEA ESKATZEN JARRAITUKO DU



Karmelo ikastolakoek euren mobilizazioekin jarraitu dute azken asteetan.

Karmelo ikastolaren asanbladak Hermanitas de los Pobresen ondoko orubea ikastola berria egiteko eskatzen jarraitzea erabaki du. Mahai gainean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak Larreagaburu mendi gainean ikastola berria egiteko aukera zegoen baina Karmelo ikastolakoek euren hasierako eskariari utsiko diote.

Testua: **H. O.** / Argazkiak: **Iñigo Azkona**

A benduaren 11n batu zen Karmelo ikastolako asanblada. Lehendik batzar informatiboak eginda zeuden egoera zertan zen jakiteko. Batez ere, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailaren proposamenaren berri emateko. Larreagaburu (Morro) mendi gainean ikastola berria eraikitzeke proposatu du Maria Anjeles Iztueta sailak. Eraikin berria 2005eko iraila edo abendurako prest egongo lirake Karmelo ikastola bere baitan hartzeko. Zero eta hamabi urte bitarteko ikastola izango litzateke.

Asanbladari egindako galdera izan zen ea Karmelok bere orain arteko aldarrikapenarekin, hots, Hermanitas de los

Pobresen ondoko orubea eskatzen jarraitu behar zuten ala ez. Guztira 220 boto zenbatu zituzten eta eurretatik 39 baino ez ziren izan kontrakoak. Lehengo bide horretatik segitzearen alde, oster, 150en bat agertu ziren. Beraz, Karmelo ikastolak lehengo eskariari eutsi eta Atxuri eta Santutxu arteko orube horretan eskatuko du ikastola berria. Edozelan be, aukera horrek bide laburra dauka, laster batean baitira bertan urbanizazio lanak.

AZKUNAK EZETZ

Hain zuzen ere Karmeloren aldarrikapenari bideak irekitzeko asmoz, ikastolako ordezkari bat Iñaki Azkuna



alkatearekin batu zen abenduaren 17an Bilboko Udaletxean. Alkatearekin batera Hirigintza zinegotzi Ibon Areso (EA) eta Hezkuntza zinegotzi Jose Manuel Uribarri (EA) azaldu ziren.

Karmelo ikastolaren eskariaren aurrean Azkunak ezetz erantzun zuen, orain arteko jarrerari eutsiaz. Alkatearen iritziz, eskakizun hori 'extemporanea' da, eta ez dago inongo aukerarik ikastolari ibarbide horretan txoko bat egiteko. Azkunak Karmelokoak lasaitu nahi izan zituen esanez Larreagaburu ikastola berria egingo balitz ez luketela indarririk galduko.

Ikastolakoek, euren aldetik, alkateari gogoratu zioten ez dutela bakarrik ikastola salbatu gura, "Santutxuri zerbitzu bat ere eman nahi diogula".

Azkenean batzarra ezelango akordio barik amaitu zen. Hori ikusita, abenduaren 19an ikastolako ordezkari batzuek Bilboko Udaletxera azaldu ziren. Bertan lur apurrrak paketeetan sartuta utzi zituzten. "Alkateak eskaini nahi ez digun lur hori bera guk emango diogu berari", azaldu zuten ikastolako arduradunek.

ALKATEARI TXISTUKA

Abenduaren 26an, Artsuagaren kale partikularreko lanak inauguratzera etorri zenean, Iñaki Azkuna alkateak Karmelo ikastolakoek protestak eta txistukadak entzun behar izan zituen. Beste behin ikastola berria Santutxun egiteko trabak ipini beharrean lagun dezala eskatu zioten gurasoek.

OLENTZERORI KANTARI ESKOLA GUZTIETAN

Abenduaren 20an Begoñako elizate zaharreko auzo guztietako eskoletako umeak kalera atera ziren baserriarekin jantzita Olenzerori kantatzera. Gure kaleak musikaz eta euskaraz bete ziren jai giro alaitsu eta ilusioz beteaz. Argazkian, Uribarriko eskoletako umeak kantu kantari.



SELEKZIO BERRI BATEN ABIAPUNTUA

Txurdinagako kiroldegiak gurgil-aulkiko euskal taldearen lehendabiziko urratsak bizi izan zituen



'Zuharrak' taldearen artxibo irudia.

Testua: **Unai Cuevas**
Argazkia: **Iñigo Azkona**

Pasa den abenduaren 14an, Zuharrak-Zuzenak partida zela eta gurgil-aulkiko euskal selekzioaren lehendabiziko pausuak eman ziren. Izan ere, Lehen Maila Nazionaleko (saskibaloian LEB-1 dagokio) zortzigarren jardunaldian, bi taldeetako jokalariek elkarrekin kantxaratu ziren gurgil-aulkiko euskal selekzioa aldarrikatzen zuen kartel bat eskuan ageri zutelara. Era berean, euskal selekzioen normalizazioa eskatzen zuten Esaiten kamisetekin azaldu ziren, kiroldegian bildutako jendearen txalo zaparradapean. Festa giroan hasi zen derbi honen hasiera biribiltzeko, abuztuan Alemanian izandako Munduko txirrindulari txapelketan errepideko eta erlojupeko proba paralinpikoan txapelkunorde izan zen Aitor Oroza Flores bizkaitarrari omendaldia eskaini zioten (Aurten Espainiako Txapelduna izan da bi espezializateetan). Zuharrak taldeko presidentea den Luis Maria Aranburuk oroigarri bat oparitu zion Gaztedi Dantza Taldeko dantzari batek oherrezko aurrekua eskaini zion.

Bestalde, partidaren hustartean, Zuharrak taldeko lau bazkideen arteko jautiketaren libreen eta hiruko jautiketaren lehiaketa burutu zen. Honela, irabazleak espero baino ari nago jaso zuen gabon saria.

Kirol arloari helduta, Zuharrak galdu gabe zebilen Zuzenak Gasteizko taldeari gailendu zitzaion (56-48). Arabarrak aurretik ibili ziren lehendabiziko laurdenetan. Atsedendira zazpi puntuko abantailarekin joan ziren (22-29). Baina azkenengo bi laurdenetan, talde gasteiztarreko hasierako bosteko jokalariek bi kaleratuak izan ziren falta gehiegi egin eta gero.

GARAIPENA

Txurdinagako taldeak, berriz, ez ohiko duen bostekoarekin momenturik erabakigarrietan partida aurrera ateratzea lortu zuen. Garaipen honen bidez, Zuharrak-ek euren kantxan azken bi denboraldietan porrotik ezagutu gabe jarraitzen du. Honela, talde bilbotarrak bere publikoaren aurrean jokatu zuen 2002.eko azken norgehiagokari amaiera ezin hobea eman zion. Publikoak, bere aldetik, erantzun aipagarri izan zuen eta ohikoa baino jende kopuru gehiago bildu zen. Ea hemendik aurrera berdina gertatzen den eta zaleen laguntasuna dela medio Zuharrak hurrengo denboraldian gurgil-aulkiko saskibaloia mailarik gorenean ikusten dugu. Eta urte zaharra bukatzean egonik, euskal selekzio ofiziala ikusteko aukera ere ezin dugu ahaztu.

BERRETIN (1.226 m.) Markinatik (Zuia)

Markina auzora joateko Altubetik Murgiarako bidetik abiatuta Murgia herrira heltzean errepide bat ikusiko dugu eskumantantz, Oro santutegira daramana hain zuzen. Pixka bat aurrerago eta ezkeraldera ikusiko dugun errepideak Sarriatik eta eliza ondotik eskumantantz Markina auzora eramango gaitu.


Berretinera igotzeko bi aukera ditugu: Bata eliza ondoan hasten da eta beste erreka ondoan doan bidetik. Guk lehenengoa hautatu genuen. Elizaren eskumaldetik pista bat abiatzen da, aldapan gora baina nahiko eroso bidegurutze batera heldu arte (45'). Bertan hiru pista: bata ezkererantz, erikoa zuzen gorantz eta bestea (gurea) eskumantantz eta gorantz. Hortik jarraituz beste bidegurutze bat aurkituko dugu (30'). Hori izango da itzultzeko erreferentzia puntua.

Bidegurutzean ezkererantz doan pista hartu behar dugu, beti gorantz. Laster pinudi batean sartuko gara, baita zabalgunek bat ikusi ere. Berriz ere beste hiru pista aurkituko ditugu; erdikoa hartu baina kontuz, nahikoa estalita agertzen da eta askotan pistarik ere ez dagoela ematen du.

Horregatik zuzen joan behar da, beti gorantz pinudia zeharkatuz zabalgunek batera heldu arte. Hortxe dago tontorra bi txartel-kutxekin (15').

Itzultzeko bide bera hartuko dugu, lehen aipatu dugun erreferentzia puntura heldu arte. Hor ezkerretarantz aldapan behera jaitsiko gara. Hamar minutu geroago beste bidegurutze bat aurkituko dugu eta eskumantantz doan bidetik jarraituko dugu.

Pistari jarraituz, eta hogeituz ibili eta gero beste bidegurutze batera helduko gara. Hor ezkerretarako bidetik jaitsiko gara. Zuzen jarraituz erreka agertuko da, gaztainondo handi bat eta harresi bat barruan erlategia duela. Laster Markinara helduko gara.



JAKINGARRIAK

IGOERA:
ordu eta erdian egin daiteke.

JAITSIERA:
ordu eta laurden.

ALTUERA:
Berretin (1.226 m)

O T A B A I

I D E A N G O R A

KIRIKIÑOKO BERTSO HITZORDUA



Testua eta argazkiak: Alberto Ugarte Amuriza, Peñagarikano, Elortza eta Bartra Kirikiñoako saioan.

Kirikiño ikastolak, ohi duen legez, gabonak inguruan antolatzen du bertso saioa. Aurten ere, inoiz baino gogotsuago eta, jakina, aparteko arrazoia-gaz ikastolak 25 urte betetzen baititu. Aurkezpenik behar ez baina, bai, merezi duten lau bertsolari ekarri zituzten ikastolako ganbarara. Leku epel eta atseginean beti prest dagoen Xabier Amuriza, hasi direnetik urtero urtero ia begiak itxita bidea dakien Peña, Txapela jantzi berri duen Igor Elorza eta etxekoa den Oihana Bartra batu ziren. Osagai hauek guztiak onduz saio polita gertatu zigun Sebas Angoitiak, Kirikiñoako bertako irakasleak eta bertsozale amorratuak.

Haserako agurrean guztion ahoan izan zen ikastolaren 25. urteurrena. Hona hemen Xabier Amurizarena:

*Zer pintatzen dau agure batek
Holako gazte tartera
Baina neuk bildu nahi neban zuen
Hogei eta bost urtera
Gatzenak egin dozuezala
Badaukat susmo pozbera*

*Orain besterik ez da gelditzen
Jarraitu holan aurrera
Jarraitu holan pixkat handituz
Egunetik egunera
Egunetik egunera*

Hezkuntzako gaiek jarraitu zioten agurrari baina orduan etorri zen ezustekoa. Inork, inoiz pentsa ezin zezakeena gertatu zen. Gainera horren ostean bertso saioa guztiz bestelakotu zen. Orduantxe jakin genuen Bizkaiko Bertsolari finalaren osteko kontrol antidopinean Igorrek positibo eman zuela. Honelaxe bota zuen ziplo txapeldun berriak lehenen bertsoan:

*Gaur Kirikiñon hasi behar dot
Egi osoa kontetan
Pastilla batzuk hartzen nebazen
Arratsaldeko lauretan
Gero bertsotan burua neukan
Bero, sutan eta ketan
Ta azkenean txapela handia
Neure buruaren bueltan*

*Dana izan zan positiboa
Niretzat lengo domekan
Larai larai larai larai
Niretzat lengo domekan*

*Aitortu behar dut oso gogorra
Izan zala biharamona
Berez mugatu xamarra da ta
Bertsolari zein pertsona
Lengo domekan hartu nebazen
Nik hiru lau droga tona
Kokaina apur bat extasi pixkat
Epoa ta nandrolona
Horrek hobea egin ninduen
Berez izan arren ona
Larai larai larai larai
Berez izan arren ona
Kantatu zuen bigarrena.*

Eta hirugarrenean biribildu zuen ezusteko bertso honekin:

*Ederra hartu behar dut orain
Jentaurrean propaganda
Ez dot egingo kontranalisi ta
holakoen demanda
Beraz txapela entregatzeko
Ere heldu jata txanda
Frediri emon behar jako
Justu justuak izanda
Niri extasi ta nandrolona
Unaik pasau eustazan da
Larai larai larai larai
Unaik pasau eustazan da."*
Sebasek ederto asmatu zuen gai hau Igorri jartzean, gaurkotasuna eta hurbiltasuna ezin hobeto uztartu zituelako.

Bertso hauen ostean Peñak azaldu zigun ikastola sortu zenean ze esperantza zeukan. Ondoren, Xabier eta Igor, bertsolari txapelak bihurtuta, nor baino nor ibili ziren. Azkenik loreak elkarri boteaz amaitu zuten. Xabierrek honela bukatu zuen bertsoetako bat:

*baina desio dausut saltoa
Lehen esan dodan modura
Bizkaitik Euskal Herrira eta
Euskal Herritik mundura
Euskal Herritik mundura."*
Eta Igorrek erantzun:
*Gure garaiko bertsolaritza
Helduko da oso gora
Euskal Herritik mundura eta
Mundutik unibertsora
Mundutik unibertsora*

Ondoren puntuka aritu ziren hiru gizonaekoa eta, nola ez, Igorrek garatutako dopinaren eta drogaren gainean. Saio bizi eta umoretsua osatu zuten hiruron artean.


*"Hola hoba egiten da
Bertsozko burruka*

*Efektua eukala
Ezin deusut uka*

*Gero iturriagari
Emon deusot kulpa*

*Xabier zu jaio
Zinen drogatuta*

*Eta hala segitzea
Gaur bertsolaritza*



*Drogarik gabe zer da
Gure Amuriza*

*Ezpain ertzetik hortxe
Jausten jako bitsa*

*Zer izango ete zan
Ni drogau banintza
Amaitu zuen Xabierrek.*

Ehun pertsonatik gora bildu ziren oso leku atseginean eta giro epelean. Bertso saioak behar zuen gatza Sebas Angoitiak eman zion eta asmatu zuen. Ondoren, urtero bezala, ikastolako jantokian afari legea egin zuten bertsolariak eta gazteak.

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Egia esango baneutsu ez zenduke sinistuko. Beraz, hoba dozu zu zeuk ikustea... Baina jakingo bazendu...

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Denbora larri euki dozu futbola itxaroten. Ea oraingoan apurtxo bat hobeto zabilzen... hanka sartu barik, badakizu...

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Zure bide barrian gauzak ederto joango jatzuz. Baina lehengo lagunez inoiz akordatuko zara ezta?

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Olentzerogaz entxufea eukitea ez da kontu polita. Zelango opari ederrak laga deusuzan!

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Gabonzaharrekoa ez dogu kontatuko. Aldizkari hau adin guztietako pertsonentzat da...

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Urte barriak ekarriko deustu eskatutakoaren zati bat eta eskatu ez dozunetik asko. Zer izango dan hobeago, zuk jakingo dozu!

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Balizko errotetan, badakizu... Hoba dozu behingoz zirt edo zart egitea...

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Urtebarriako asmo on piloa metatu dozu. Baten bat beteko bazendu...

Sagitaris: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Gabonetan amodiozko gezi bat jaurti dabe eta, ikusten danez, bete-betean jo zaitue. Orain jakin behar dozu nor izan dan...

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Zelan hazi jatzun zilbota azken asteotan! Oin puntak ikusterik be ez dekozu. Konturatuko zinan, ezta?

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Negargarri gelditu ohi zara berba egiten dozun bako-txean. Ezetz astebete isilik egon!

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Bakalao party horietan zabilzanetik gero eta papardo aurpegi handiagoko dekozu, lagun. Arrain kontua izango da...

agenda

URTARRILAK 6
SEI IZAR HERRI KROSA
SANTUTXUN.

URTARRILAREN 10-11
MAGIA IKASTAROA TXAN
MAGOAREKIN. KARMELO
IKASTOLAREN
HAURTZAINDEGIAN
(SANTA MARTA).
ANTOLATZAILE: ASAPALA
KULTUR ELKARTEA.

URTARRILAK 10
IDI BIHOTZ. 'AMAIGABE
BERRIA' DISKOAREN AUR-
KEZPEN KONTZERTUA. KAFE
ANTZOKIA. GAUEKO 10ETAN.

URTARRILAK 12
IRRINTZI TXOTXONGILO
TALDEA: 'BAKARTXOREN
ZAPATILAK'. ARRATSALDEKO
5,30ETAN. KAFE ANTZOKIAN.

URTARRILAK 16
PETTI ETA BIDE ERTZEAN.
KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIAN.
GAUEKO 10ETAN.

URTARRILAK 19
KIXKA TXOTXONGILO
TALDEA: 'ZURI ETA BELTZ'.
KAFE ANTZOKIA.
ARRATSALDEKO 5,30ETAN.

URTARRILAK 29
UNAI ELORRIAGA
IDAZLEAREN HITZALDIA.
SANTUTXUKO AEK
(ARBIDEA, 21).
ARRATSALDEKO 8ETAN.
ANTOLATZAILE: ASAPALA
KULTUR ELKARTEA.



AURTEN... OPARI MAGIKOA!

DEITU ORAIN! **902 45 12 12**
Eska itzazu zure opariak TRUKen KATALOGOan

TRUK
902 45 12 12
WORLD - SPECIAL NUMBER

txan magoa



36€
bidalketa gastuak
barne

**TXANen
KAMIXETA**
Neurriak:
4-6-8-10 urte

**MAKILATXO
MAGIKOA**
Magia egiteko
ezinbestekoa!



LOR EZAZU
TXAN MAGOAREN
MAGIA
KITa!

KUTXA MAGIKOA
Sar ezazu TXAN barruan eta
desagertu egingo da!

BIDEOA
TXANek magia egiten irakatsiko dizu!
Ikas itzazu magoen trikimailu guztiak!